



BBK 2020 EZOHIKO KULTURA- DEIALDIKO PROIEKTUEI LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN AGIRIA

BBK-k, Covid osteko arora egokitutako jardueren esparruan,

BBK 2020 Ezohiko Kultura Deialdia egiten du

1. PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN XEDEA

BBK BBK-k **Bizkaian proiektuak** garatzen dituen kultura-sektoreari lagundu gura dio deialdi honekin. BBK-k helburu hauek ditu: kulturaren digitalizazioa eta gizarte osoak kultura eskura dezan bultzatzea, belaunaldien arteko boluntariora sustatzea eta euskararen erabilera eta euskal kulturaren sustapena eta kontserbazioa bultzatzea, zehazki, honako arlo hauetan:

Bizkaiko kultura-ekitaldiak: atal honetan kultura-sektorearen digitalizazioa eta berrikuntza soziala kulturaren bidez bultzatzea helburu duten proiektuak sartuko dira.

Kultura-sektorea digitalizatzea. BBK-k kultura-sektorearen eraldaketa digitalizatorantz bultzatu gura du, sektorearekin antzemandako eta adostutako aukera bati erantzunez, garai berrietara egokitzeko eta jendeari kulturaz gozatzeko tresna berriak emateko.

Interes berezia izango dute eredu berri baterako trantsizioa eta egokitzapena bilatzen duten proiektuek edo sektoreko eragileei, eraldaketa-tresna gisa, prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen dietenek. Era berean, interesgarriak izango dira forma artistiko digital berriak bultzatuko dituzten proiektuak.

- a) Berrikuntza kulturaren bidez. BBK-k herritar guztiei, batez ere talde ahulenei eta parte-hartze txikiena duten biztanleria-sektoreei, kulturarako sarbidea erraztea bilatzen duten kultura-adierazpenak babestu gura ditu. Horrez gain, artista gazteen belaunaldia eta garapena sustatzen duten proiektuak bultzatu gura dira.

Interes berezia izango dute zenbait udalerritan jarduera-eskaintza bat sustatzen duten ekimenek, Bizkaian lurralde-kohesioa lortzen laguntzeko, edo, gizarte-ikuspegitik, hainbat arrazoiengatik kulturara sartu ohi ez diren pertsonen sarbidea errazteko. Belaunaldien arteko kultura-boluntariora eta Bizkaiko kultura-sektorean artista berriak eta talentu berria sartzeari sustatuko dira, prestakuntza, trebakuntza, ekoizpena eta lanen erakusketa bultzatuz.

Euskara eta Euskal Kultura: BBK-k euskara eta euskal kultura sustatu gura ditu, Bizkaian horiekin lotutako izaera askotako kultura-adierazpenak babestuz.

Interes berezia izango dute tresna berritzaileen bidez hainbat kolektiboren euskararen erabilera bultzatzen duten ekimenek, edo euskal kultura-tradizioa hainbat diziplinatan (bertsolaritza, kirola, euskal dantza, ...) kontserbatzea eta publiko berrietara eta modu berritzailean transmititzea eta zabaltzea sustatzen dutenek. Interesgarriak izango dira, halaber, euskal historiaren ezagutzaren dibulgazioa eta zabalkundea sustatzeko ekimenak, edo Bizkaiko gizartean behar gehien dituzten sektore profesional eta kolektiboetan euskararen ikaskuntza sustatzen dutenak.

Covid-19 osteko testuinguru honetan, proiektuek eguneratuta egon beharko dute errealitate berri honetara, une bakoitzean ezarritako segurtasun-neurri eta -irizpideei jarraituz. Gainera, interes berezia izango dute osasun-krisiak eragindako egoerei laguntzea helburu duten proiektuek.

2. ERAKUNDE ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

Oinarri-agiri honetan aipatzen diren laguntzak eskatu ahal izango dituzte legez eraturako irabazi-asmo bako erakundeek edo hirugarren sektoreko erakundeek; horien artean egon daitezke, besteak beste, fundazioak, elkarteak, onura publikoko eta gizarte-ekimeneko kooperatibak, gizarte-ekintzako irabazi-asmo bako erakundeak, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak, laneratze-enpresak eta enplegu-zentro bereziak.

Horiek guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Legez eraturata eta dagokien erregistroan edo erregistroetan inskribatuta egotea.
- b) Jarduera nagusia aurreko klausulan zehaztutako eremuetan garatzea; jarduera horrek erakundearen estatutu sozialetan edo antzeko dokumentuan jasota egon beharko du.
- c) Proiektua gauzatzeko kaudimena egiaztatzea, horretarako eskatutako dokumentazioaren bidez.
- d) **Azken 5 urteetako** deialdietan aurkeztu badira, BBK-k emandako laguntzak justifikatu izana.
- e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.

Era berean, Kutxabanken banku-kontu bat izatea eskatuko da, onuradunak jaso beharreko zenbatekoa ordaintzeko.

Erakunde eskatzaileek erreferentziazko eragileak izan beharko dute aurkezten diren eremuan. Guztiek hainbat proiektu aurkeztu ahal izango dituzte. Hala ere, horietako bat baino ez da finantzatuko.

Ezingo dute proiekturik aurkeztu administrazio publikoek, erakunde autonomoek edo unibertsitateek.

3. PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

Proiektuak Bizkaian garatuko dira, eta lurralde horretan bizi diren pertsonak izango dira hartzaileak. Bizkaitik kanpo ere gauzatuko diren proiektuetan, lurraldeari eta bertan bizi diren pertsonen dagokien zatia baino ez da finantzatuko.

Baldintza hauek bete beharko dituzte oinarri-agiri honetan aipatzen diren laguntzak eskatzen dituzten proiektuek:

- a) BBKren ildo estrategikoekin eta adierazitako jarduera-eremu espezifikoekin bat etortzea (% 15)**
Aurkeztutako proiektuaren helburua BBKren ildo estrategikoetan eta Oinarri hauen 1. klausulan jasotako jarduera-arlo espezifikoetan markatutakoekin bat etortzea baloratuko da.
- b) Proiektuaren izaera berritzailea (% 10)**
Deialdi honetan lagundutako proiektuek izaera berritzaile nabarmena izan beharko dute, eta Bizkaiko biztanleen beharrez nagusiei irtenbide berriak eman beharko dizkiete.
- c) Inpaktu soziala (% 30)**
Lagundutako proiektuek gizarte-eragin edo inpaktu sozial argia izan beharko dute, hau da, aldaketa bat (eraldaketa, onura, ikaskuntza, beste ondorioren bat ...) sortu beharko dute interes-talde onuradunetan.
- d) Garatu beharreko jarduerak (% 7,5)**
Ezarrutako helburua lortzeko garatu gura diren jardueren plangintzan eta koherentzian jarriko da arreta.
- e) Eskatutako zenbatekoa (% 10)**
Arau orokor gisa, BBK-k proiektuaren aurrekontu osoaren % 75 finantzatuko du gehienez. Erakundeak kofinantzatzeko ahalegina egiten badu eta % 75etik beherako kopurua eskatzen badu, puntuazio positiboa emango da.
Emandako zenbatekoa ez da, inola ere, 50.000 eurotik gorakoa izango.
- f) Erakunde eskatzailea (% 7,5)**
Kolaboratzailearen ospea baloratuko da, eta proposamena hainbat kolaboratzailearen artean planteatzea ere bai.
- g) Proiektuaren ikusgarritasuna (% 20)**
Proiektua eta lortu gura duen kausa ikusgai jartzea baloratuko da, baita BBKren berriazko laguntza erakustea ere.

GAUZATZEKO EPEA

Proiektuak edo gutxienez finantzatutako fasea gauzatzeko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da. Proiektuak edo finantzatutako faseak 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean hasi beharko dira.

4. FINANTZAKETA-BALDINTZAK

Erakunde onuradunei esleitutako zuzkidura ekonomikoa Proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako inbertsioak eta gastuak ordaintzeko erabiliko da, eta argi eta garbi azaldu beharko da horren beharrezana Proiektua garatzeko.

Kudeaketa- eta administrazio-gastuek, Proiektua sortzekoak barne, ezingo dute Proiektuaren aurrekontu osoaren % 10 gainditu, ezta, hala badagokio, aipaturiko Proiektuari BBK-k esleitutako diru-zuzkidurarena ere.

Arau orokor legez, honako gastu hauek ezingo dira eskatu laguntza gisa:

- **Erakunde eskatzailearen ohiko egoitza mantentzeak** sortutakoak.
- Proiektuaren ardura duen lantaldearen **dietei, egonaldiei eta bidaiei** dagozkienak. Hala ere, debeku horretatik kanpo geratuko dira proiektua gauzatzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, betiere BBKren iritziz arrazoizkoak badira.

Hautatua izanez gero, sinatzen den hitzarmenaren indarraldian garatuko da proiektua. Edozelan ere, ezin izango dira 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko gastuak egotzi, ezta diruz lagundutako aldia amaitu osteko gastuak ere. Ekarpn ekonomikoa ezin da erabili zorrak ordaintzeko, ezta ezelako finantza-eragiketarik amortizatzeke ere.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira erakunde esleipendunak jasotako beste edozein diru-laguntzarekin, baldin eta laguntza horiek emateak Proiektuaren gain-finantzaketarik eragiten ez badu eta beste **finantza-erakunde edo banku-fundazio** batek kofinantzatzen ez baditu.

Erakundeak BBKren beste ekarpen batzuk jasotzen baditu, honako hauek aztertuko dira:

- Administrazio- eta kudeaketa-gastuetara bideratutako zenbatekoa ez izatea proiektuaren aurrekontuaren % 10 baino handiagoa.

- Egiturazko (pertsona, alokairu, ...) gastuetara bideratutako zenbatekoek ez dezatela erakundearen gain-finantzaketarik eragin eta, edozelan ere, BBK-k berrikusi egin beharko ditu.

Oro har, esleitutako zenbatekoaren % 80 Lankidetzaren Hitzarmena sinatzean ordainduko da, eta gainerakoa proiektua amaitzean, aurrez kontuak emanda.

5. ESKAERAK AURKEZTEA

Proiektuetarako laguntzak eskatu ahal izateko, beharrezkoa da aldeztu aurretik erregistratzea BBKren webgunean, www.bbk.eus, **BBK eta ZU** atarian.

Erakundearen erabiltzailea sortu ondoren, "**BBK proiektuak**" atalera sartuko gara, eta 2020ko Ezohiko Kultura Deialdiaren programari dagokion formularioa bete beharko da.

BBK eta ZU atarian alta emanda egoteak aukera emango du egindako eskaera bakoitzaren egoera une oro zein den jakiteko, baita inskripzio-aldian hura aldatzeko ere. Beharrezko dokumentazioa BBK eta ZU atari berean aurkeztu beharko da. Edozein kontsulta bbkproiektuak@bbk.eus helbide elektronikoan erantzungo da.

Eskaerak egiteko epea **2020ko uztailaren 13an** irekiko da, eta eskaerak BBKn jasotzeko azken eguna **2020ko uztailaren 30a** izango da.

Ez da eskaerarik onartuko ezarritako epetik kanpo.

"FORMULARIOA BETETZEKO GIDA" dokumentua irakurtzea gomendatzen da, eskaera behar bezala betetzeko.

Proiektuak aurkezteak esan gura du Oinarrien Agiri hau baldintza barik onartzen dela, baita dagokion BBKren erabakia ere, hori atzera bota ezina izango baita.

6. BBK-K EMATEN DUEN DOKUMENTAZIOA

Ondoren zehazten den dokumentazioa BBK eta ZU atarian deskarga daiteke, eta www.bbk.eus webgunean, "2020ko ezohiko Kultura deialdia" atalean.

- **2020ko Kultura Proiektuen Ezohiko Bbk Deialdia. Oinarriak**
- **Formularioa betetzeko gida**
- **Proiekturako proposatutako eredia**
- **Erantzukizunpeko adierazpena**
- **BBK kode etikoa**
- **BBKn debekaturiko jokabideen katalogoa**
- **Txosten teknikoaren eredia**

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Inprimaki edo formularioa Oinarrien Agiri honen 5. klausulan adieraziaren arabera betetzeaz gain, honako dokumentu hauek entregatzea eskatzen da:

- **Proiektuaren proposamena**
- **Erantzukizunpeko adierazpena**

Eskaera bete ostean, formularioaren azken orrian, "**Dokumentazioa**" atala dago. Atal horretan, goitibeherako menu moduan, eskatzen diren dokumentuen zerrenda irekiko da. Erabiltzaileek dagokion dokumentua aukeratu beharko dute beren gailutik, erantsi eta eskaeran erregistratuta gera dadin.

Izena emateko aldian, erantsitako dokumentazioa aldatu ahal izango da, erantsitako dokumentu berri bakoitzak aurreko dokumentua ordeztuko duela kontuan hartuta.

8. PROIEKTUEN HAUTAKETA ETA DEIALDIAREN EBAZPENA

Oinarrien Agiri honetako 3. klausulan jasotako balorazio-irizpideen arabera ebaluatuko ditu proiektuak BBK-k.

BBK-k **2020ko urriaren 5a** baino lehen ebatziko du deialdia eta erakunde bakoitzari dagokion ebazpena jakinaraziko dio. Gainera, www.bbk.eus webgunearen eta egoki irizitako beste bitarteko eta sare sozial batzuen bidez ere argitaratuko du, prozesuari gardentasun handiagoa emateko.

Ebazpen hori behin-behinekoa izango da, eta Oinarrien Agiri honetako 9. klausulan zehaztutako dokumentazioa egiaztatzeak baldintzatuko du.

Era berean, hitzarmena sinatu ostean proiektuan egiten den edozein aldaketa BBKri aurkeztu beharko zaio, onar dezan.

9. LANKIDETZA-HITZARMENA FORMALIZATZEA

Erakunde onuradunaren eta BBKren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatuz formalizatuko da, indarrean dagoen legediari lotuta. Lankidetzaren hitzarmen horretan, bi aldeek eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira, eta, besteak beste, proiektua gauzatzeko epea, laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta proiektuaren jarraipena zehaztuko dira.

Dokumentu hori formalizatu ahal izateko, aukeratutako proiektuek, ebazpena eman eta **15 eguneko** epean, BBKren www.bbk.eus webgunearen bidez honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute BBK eta ZU atarian:

- Erakunde eskatzailearen **estatutuak**.
- Dagokion **erregistroan inskribatzea**.
- **Identifikazio fiskaleko txartela**.
- Erakundearen legezko ordezkariaren **NANa**.
- Eskatzailearen **ordezkaritza-ahalordeak**, edo, hala badagokio, estatutuen arabera erakunde eskatzailearen izenean jarduteko gaitzen duen karguaren izendapena.
- Kontuaren **titulartasunaren ziurtagiria**.
- **Erakundearen logoa**.

Erakundeak aldez aurretik dokumentazio hori "**Erakundearen Dokumentuak**" atalean sartu badu, dokumentazio hori eguneratuta dagoela egiaztatu beharko du, eta dokumentu guztiak baliodunak direla hitzarmena sinatzen den unean.

Lankidetzaren Hitzarmena **2020ko azaroaren 31 baino lehen** sinatu beharko da. BBKrekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik hitzarmena epe horretan sinatuko ez balitz, erakundeak onartutako laguntza jasotzeko aukera guztiak galduko lituzke.

Baldin eta, behin dokumentazioa aurkeztuta, egiaztatzen bada erakundeak ez dituela betetzen Deialdi honetako oinarrietan eskatutako baldintzak, ukatu ahal izango zaio behin-behinean onartutako laguntza.

10. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektua amaitu ostean, lankidetzaren hitzarmenaren dokumentuan jasoko den legez, erakundeak BBKri egiaztatu beharko dio proiektua gauzatu duela, hura amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean. Zehazki, proiektua amaitutakoan, justifikazio hau aurkeztu beharko da BBK eta ZU atariaren bidez:

- a) "DOKUMENTAZIOA" atalean, "TXOSTEN TEKNIKOA" dokumentua erantsi beharko da (bete beharreko eredia "BBK-K EMATEN DUEN DOKUMENTAZIOA" atalean dago).
- b) "TXOSTEN EKONOMIKOA" atalean, Justifikazio Ekonomikoaren datuak eguneratu beharko dira. (Atal hau eskaeran emandako datuekin osatuko da. Aurrekontuan jasotako informazio ekonomikoa proiektuaren benetako datu ekonomikoekin eguneratu beharko da, eta justifikazio-fakturen zerrendarekin babestuta egon beharko du).
- c) "INPAKTU SOZIALAREN TXOSTENA" atalean, proiektuaren gizarte-eraginari buruzko datu errealak. (Atal hau eskaeran emandako datuekin osatuko da. Horiek datu errealekin aldatu beharko dira).
- d) "DOKUMENTAZIOA" atalean, PRENTSAKO JUSTIFIKAZIOAREN dossier bat erantsi beharko da.

Laguntzaren erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du proiektuari eta haren inbertsio eta gastuei buruzko beste edozein informazio edo dokumentazio emateko, BBK-k eskatuta, eta, hala badagokio, BBK-k Proiektuaz egin dezakeen auditoria edo kontu-ikuskaritza onartzeko.

BBK-k egiaztatzen badu deialdi honetan eskatzen diren baldintzetakoren bat, edozein, ez dela guztiz edo zati batean bete, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango du, eta egokitzen jotzen dituen akzio judizial guztiak gauzatzeko aukera bere esku izango du.

11. AMAIERA

Oinarrien Agiri honetan aurreikusten ez diren inguruabarrak edo gaiak BBKren irizpidearen arabera ebatziko dira, eta haren erabakien aurka ezingo da helegiterik jarri.

Ezohiko Kultura Deialdiko Oinarri hauek edozein punturen interpretazioari buruz zalantzarik edo desadostasunik gonez gero, BBKren irizpidea nagusituko da.